Azaroaren 25eko kanpainak indarkeria matxistaren aurrean pertsona bakoitzak hartzen duen tokiari buruz hausnartzera gonbidatzen gaitu

- **Emakundek, hiru foru-aldundiek eta EUDELek kanpaina bat aurkeztu dute, "Indarkeria matxistaren aurrean, zure lekuak axola du" lelopean**
- **Aurten, ia 5.000 emakumek salatu dute indarkeria matxistaren kasuren bat EAEn**

Gasteiz, 2026/11/09

Emakundek, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiek eta EUDELek azaroaren 25 Emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko Nazioarteko Egunaren erakundeen arteko kanpaina aurkeztu dute gaur.

Aurtengo leloa da "Indarkeria matxistaren aurrean, zure lekuak axola du", eta herritarrak animatu nahi ditu edozein indarkeria matxistaren adierazpenen aurrean jarrera proaktibo bat izatera.

Kanpainak beste urrats bat eman nahi du indarkeria matxista jasaten duten emakumeen inguruan komunitatea sortzeko ideian, eta jarrera aktiboa sustatzen du indarkeriarik gabeko gizartea egiten laguntzeko. "Pentsa dezakegu, indarkeria matxista bezalako egiturazko arazo baten aurrean, gure jarrerak ez duela eraginik. Baina, egia esan, indarkeria matxistaren aurrean ez dago leku neutralik, eta pertsona bakoitzak aukeratzen duen lekuak dena alda dezake ", azpimarratu du Miren Elgarresta Emakundeko zuzendariak.

Horrela, herritarrek indarkeria matxistaren kasuak antzemateko adi egotea nahi da, eguneroko keinu txikietan ere agertzen baita indarkeria eta "desnaturalizatu eta ikusarazi egin behar baita", zehaztu du Elgarrestak.

Emakundeko zuzendariak aurten jasotako salaketei buruzko zifrak eman ditu. "2026ko urtarriletik urrira ia 5.000 emakumek (4.814) salatu dute indarkeria-kasuren bat Euskal Autonomia Erkidegoan. Eta badakigu beste emakume askok ere jasan dutela, baina ez dute salatu, ezta inorekin partekatu ere. Datuak icebergaren punta dira "adierazi du.

Hori dela eta, beharrezkoa da "euren inguruan gertatzen den indarkeria matxista arrotza ez zaiela sentitzen duten pertsona guztien" eredua jarraitzea, "euren keinuekin, ekintzekin, gizarte justuago, berdintasunezkoago eta indarkeria matxistarik gabekoago bati laguntzen diotenak", berretsi du Elgarrestak.

Erakunde arteko kanpaina

Esther Apraiz EUDELeko presidenteak herritarren inplikazioa eskatu du: "Udalerri eta komunitate osoak mobilizatzea, laguntzea eta indarkeria matxistari aurre egitea behar dugu. Emakumeen aurkako indarkeria gaitzestea garrantzitsua da, baina ez normalizatzea eta isilik ez egotea ezinbestekoa da. Inplikazioak irtenbidearen parte egiten gaitu ".

Iñaki Gurtubai Arabako Foru Aldundiko Berdintasun, Euskara eta Gobernantzako diputatuak adierazi duenez, "indarkeria matxistaren aurrean beste alde batera begiratzeak garrantzia kentzen die zenbait portaerari. Isilik egoteak edo beste pertsona batzuei konpontzea dagokiela pentsatzeak ondorioak ditu. Indarkeria matxistak isiltasuna behar du mantentzeko eta ugaltzeko, eta axolagabekeria ez da inoiz jarrera neutrala ".

Bestalde, Trinidad Vicente Bizkaiko Foru Aldundiko Berdintasun zuzendariak indarkeria matxistaren aurrean erakundeek eta herritarrek erantzun bat eman behar dutela defendatu du, "bereziki" "gizonak aktiboki eta agerian sartuz".

Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasuneko zuzendari Nerea Isasik azpimarratu duenez, "indarkeria matxistak isiltasunetan, axolagabekerian, justifikazioetan eta beste alde batera begiratzen dutenengan aurkitzen du hedatzeko eta errepikatzeko aukera. Ez da nahikoa indarkeriarik ez erabiltzea: haren aurka modu aktiboan kokatu behar dugu".

Kanpaina gaurtik azaroaren 25era bitartean egingo da telebistan, irratian, prentsa idatzian, sare sozialetan eta beste publizitate-euskarri batzuetan.